

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

2.600 langabe gutxiago izan dira 2013ko bigarren hiruhilekoan, BAiren arabera

Langabezia-tasa % 18,32 jaitsi da, tasa txikiena duen Espainiako bigarren autonomia erkidegoa izanik

Jueves, 25 de julio de 2013

2.600 langabe gutxiago izan da 2013ko bigarren hiruhilekoan urteko lehen hiru hilabeteekin alderatuz, hau da, % 4,54 gutxiago, herrialde guztian izandako portzentaje-jaitsiera baino zerbait gehiago. 55.400 pertsona daude gutzira lanik gabe, Biztanleria Aktiboaren Inkestako azken datuen arabera eta Estatistikako Institutu Nazionalak gaur



BAIk hobekuntza arin bat erakutsi du urteko bigarren hiruhilekoan.

argitaratutakoak. Horrenbestez, Foru Komunitateko langabezia-tasa % 18,32koa da (0,7 jaitsi da aurreko hiruhilekoarekin alderatuz); Espainia guztian izandako tasa, berriz, % 26,26koa izan da.

Datu horiekin, Nafarroa langabezia-tasa txikieneko bigarren Komunitatea bihurtu da eta herrialdearen gainerako lekuekin 8 puntu gutxiagoko diferentzialari eusten dio.

Lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilari Lourdes Goicoecheak adierazi duenez, langabezia-tasak oraindik ere maila altuetan jarraitzen badu ere, argitaratutako datuek hobekuntza arina adierazten dute langabeziaren zifretan eta "azken aldian ikusten ari diren ekonomia egonkortzeko seinale ahulak berretsi ditzakete". Gainera, Kontseilariak nabarmendu du Nafarroak langabezian dauden portzentaje txikieneko Komunitateetako bat izaten jarraitzen duela. "Datuak negatiboak izaten jarraitzen dute, baina egoera pixkanaka jada lehengora bueltatzen ari dela uste dugu".

BAiren arabera, langabezia Espainian % 26,26ra heldu da, eta 5.977.500 pertsona daude lanik gabe (225.200 pertsona gutxiago, hau da, % 3,6ko jaitsiera).

Andaluzia, Kanariak eta Extremaduran, adibidez, langabezia-tasa % 33 baino handiagoa da eta EAE, Nafarroa eta Madrilen, langabezia-indize txikiak daude, % 20aren azpitik (% 15,46 EAEn; % 18,32, Nafarroan eta % 19,52, Madrilen).

Foru Komunitatean aldaketa 2.600 langabe gutxiago izan dela da,

1.100 gizon gehiago eta 3.700 emakume gutxiago. Bestalde, okupazioa 100 pertsonatan gutxitu da, eta gutxitze hori handiagoa izan da gizonetan, 1.000 gutxiago; emakumeen okupazio, berriz, 900 emakumetan igo da.

Sexuaren arabera, azken hiruhilekoan, langabezia emakumeen artean jaitsi da bereziki, langabezia-tasa bi puntu baino gehiagotan murriztu duena; gizonen langabeziak, berriz, 0,64 puntu egin du gora.

Adinaren arabera, bigarren hiruhileko honetan langabezia jaitsi egin da 25-54 urte arteko taldeetan (1,4 puntu gutxiago) eta baita 55 urtetik gorako artean ere (0,9 puntu gutxiago); 25 urtetik beherako artean, aldiz, igo egin da (7,31 puntu gehiago).

Sektoreei dagokienez, langabezia sektore guztietan jaitsi da, Nekazaritzan izan ezik; sektore horretan 2.900 pertsona gehiago dago lanik gabe. Langabeen jaitsiera handienak Eraikuntzan, Industrian eta lehen enplegua bilatzen duten taldean izan dira.

Azkenik, sektoreen araberrako okupazioari dagokionez, nekazaritza-sektoreak okupatuaren hazkunde handiena du, 2.100 pertsona, eta gainerako sektoreetan okupazioa jaitsi egin da.